| HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK | | | |
|---|---|---|---|
| **ZUK ESKATU** | **EGINDA** | **MARTXAN** | **EGITEKO** |
| • BIDE PUBLIKOAK, BIDEGORRIAK ETA IBILBIDEAK<br>- Mantenimendua hobetzea<br>- Bidegorriak osatzea<br>- Bide zaharrak berreskuratzea<br>- Bidegorri sarea osatzea<br>- San Pedro auzoa berrurbanizatzea<br>- Edur garaian erantzun hobeago bat ematea<br>- Errepidetako zoladurak konpontzea<br>- Irisgarritasuna hobetzea | • Espaloiak konpondu dira: aske zeuden baldosak itsatsi, eta leku irristakorretan tratamendua eman da.<br>• Ibarraundin , Arbiñosten eta San Pedron baranda berriak jarri dira.<br>• Kuatruena arteko bidea hobetu da.<br>• Bidegorrian iturria jarri da.<br>• Merkatua lekuz aldatu da.<br>• Elurte plana onartu eta martxan jarri da.<br>• Beharra zuten errepideak asfaltatu dira.<br>• Arana eta Gaztañadui kaleko irisgarritasuna hobetu da.<br>• Erdiguneko bankuak pintatu dira.<br>• Txistularien arratiako eskultura konponarazi da.<br>• Euriteengatik egon ziren lur-jausiak konpondu dira. | • Terrazak arautuko dituen ordenantza garatuko da.<br>• San Pedro auzoa berrurbanizatzeko II. faseko lanak burutu dira eta III. faseko proiektua onartu da. Aurrekontua dagoenean exekutatuko da.<br>• Bidebarrieta txukuntzeko lan batzuk egin ziren, baina oraindik hobetu behar da.<br>• Irisgarritasuna hobetzeko plana eguneratzeko lanak esleitu dira. | • Oztopo arkitektonikok gutxitu behar dira.<br>• Trenbide zaharreko trazatuan bidegorria egiteko proiektua eguneratzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia.<br>• Bolibar eta Apotzagara bidegorriak egitea ez da lehenetsi, lehenagoko bideak berreskuratzea ere ez. |
| • ZERBITZUAK: GARBITASUNA , LOREZAINTZA ETA MANTENIMENDUA<br>- Kale eta eraikinen garbitasuna hobetzea<br>- Arratoien aurkako neurriak hartzea<br>- Lorezaintza lanak Elorretan ere egitea<br>- Zakarrontzi gehiago jartzea | • Kale garbiketa zerbitzuaren kontrola hobetu da, eta kartel eta pintadak kendu dira eraikinetatik<br>• Hidalgatik Olazarrerako kantoia garbitu eta margotu da.<br>• Arratoiak akabatzeko eta desinfekzio lanak egiteko enpresa aldatu da.<br>• Lorezaintza zerbitzua Elorretara zabaldu da. | • Bilketa selektiboirako zakarrontziak jarri dira. Zakarrontzien mapa osatu da non falta diren jakiteko. | • Txakur kaken arazoari irtenbide bat ematea. Kontzientziazio kanpainak egin nahi genituen, baina, oraindik ez dira egin.<br>• Eraikinen mantenimenduan erantzun azkarragoa eman behar da.<br>• Lorategitan lore gehiago jartzeko eskatu zen, baina ez da lehenetsi. |
| • ARGIZTAPENA ETA URA<br>- Kutsadura luminikodun | • Energia eta ur kontsumoa nabarmen jeitsi da. | • Liburutegiaren eta San Pedroren arteko ibilbidean LED argiak | • Ur hornikuntzaren ordenantza garatzea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| eremuetan argiztapena murriztea<br>- Eremu ilunetan argiztapena gehitzea<br>- Ur ihesak konpontzea | • Kutsadura luminikoa murriztu da Olazar, Elorreta eta Kuatruenan. Elizako eta museoko argiztapena murriztu da.<br>• Ur hodietako fugak detektatu eta konpondu dira. Irratikontrolerako inbertsioak ere egin dira zerbitzua hobetzeko.<br>• Frontoiko sabaia aldatu eta argiztapena hobetu da.<br>• Gaztañaduiko zebrabideetan argiztapena hobetu da. | jarriko dira.<br>• Industrialdearen eta Olazarren arteko bidegorriko argiztapena hobetuko da.<br>• Herriko plazako argiztapena hobetuko da. | • San Pedroko parkeko farolak konpondu eta argiztapena hobetzea. San Pedroko berrurbanizazio lanen barruan egitekoak dira. |
| • MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA<br>- Gaztañaduiko autobus geltokia lekuz aldatzea<br>- Geltoki inteligenteak<br>- Kuatruenan autobus geltokia<br>- Aparkalekuak gehitu<br>- Gaizki aparkatzen dutenen gaineko kontrol handiagoa eta isun gehiago<br>- Trafikoa berrantolatzea<br>- Ibilgailuen abiadura murrizteko neurriak<br>- Saihesbidearen eta Bolibarren arteko lotunea<br>- Eremu batzuk oinezkoentzat bakarrik jarri | • Intxaurtxuetan aparkaleku gehiago egokitu dira eta baita zamalanetarako ere.<br>• Zaldibarren 85 ibilgailurentzako behin-behineko aparkalekuak egokitu dira eta zubi bat eraiki da oinezkoen mugikortasuna bermatzeko.<br>• Herriko plaza inguruko errepidea peatonalizatu da. Gaztañaduin zamalanak eta geldialdi laburrak egiteko aparkalekuak egokitu dira. Halaber, espaloia zabaldu da irisgarritasuna hobetzeko.<br>• Garraio publikoa hobetzeko parte hartze prozesua egin da GFArekin.<br>• Antsoategiko biribilgunea egin da Santa Ana eta Olazar auzoen trafiko emaria arintzeko.<br>• Mugikortasun kanpaina egin da, hobeto aparkatu eta oinez nahiz bizikletaz gehiago ibiltzeko.<br>• Autobus geltokitan TIF-ak jarri dira, pantailak. | • Martxan da GFArekin batera egindako "lanera bizikletan" kanpaina.<br>• Kuatruenan autobus geltokia egokitzeko lanean ari gara GFArekin. Torrebason geltoki bat egokitzeko proposamena ere lantzen ari gara.<br>• Gaizki aparkatutako ibilgailuen kopurua izugarri gutxitu da, baina, oraindik ere ez da lortu arazoa erabat konpontzea.<br>• Ibilgailuen abiadura murrizteko seinaleztapena berritu da, baita zebrabideetan ere. Baina, abiadurak arazo izaten jarraitzen du, eta bestelako oztopoak jarri beharko dira. | • Pibote txikiak kendu eta handiagoak jarri.<br>• Ibien ordenantza beharretara egokitu, aldatu.<br>• Erdigunetik/Bolibarretik barianterako lotunea ez du lehenesten GFAk, aurrekonturik ere ez zen egongo. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| • PLAZA, PARKE, BERDEGUNE ETA ERREKA<br>- Intxaurtxuetako parkea handitu<br>- Parkeetan konponketak egin<br>- Berdeguneak berreskuratu<br>- Parke periurbanoa garatu | • Torrebasoko zuhaitz parkea egokitu da 6 urtetik gorako haurrentzako eremu bat egokituz.<br>• Liburutegi-haurreskolako parkea konpondu da.<br>• Azoka plazara eraman da.<br>• Erreka garbitzeko urteroko kanpaina egin da, eta URAk ere garbiketa lanak egin ditu. | • Dorletako eta Intxaurtxuetako parkeetako lurrean hobekuntza lanak egingo dira.<br>• Santa Mariñe plazari erabilera handiagoa ematea nahi da estalitako eremu ireki bat sortuz. Proiektuan bertan eskatzen ziren banku eta azpiegiturak txertatuko dira.<br>• Zuhaitz gehiago eskatzen zen. Lurrazpiko kontenedoreak lurrez bete eta zuhaitzak landatuko dira. | • San Pedroko parkea hobetu beharra dago, berrurbanizazio lanekin batera egin behar dena.<br>• Intxaurtxuetako parkea handitu eta Olaetan bat egitea. Ez da lehenetsi aurrekontu faltagatik.<br>• Plaza inguruan gerizpe gehiago. Ez da lehenetsi.<br>• Deposito zaharra, Eraña eta Axtroki berreskuratzea ez da lehenetsi.<br>• Parke periurbanoa garatzea ez da lehenetsi, aurrekontu faltagatik.<br>• Erreka garbitzea hobetu behar da, erreka egunera pertsona gehiago erakarriz. |
| • GARAPEN URBANISTIKOA ETA ESTETIKA<br>- Herri sarrera txukundu eta eraikinei irtenbide bat eman<br>- Intxaurtxuetako urbanizazioa bukatu<br>- Herriaren estetika hobetu<br>- Eraberritzea sustatu | • Arbiñosteko  etxebizitza tasatuak eman dira. Hutsik zeudenekin erosteko aukera ematen duen alokairu formula txertatu da udal araudian.<br>• Etxeen eraberritzea sustatzen jarraitzen da Suradesaren bitartez. | • Herriko sarrera eta zubia hobetu. 2015ean GFAk egokitzapen lanak egingo ditu zubi ingurua txukuntzeko. Eraikinekin saiakerak egin badira ere, jabeen aldetik ez da borondaterik egon.<br>• Eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko informazio kanpaina abiatuko da. | • Intxaurtxuetako urbanizaioa bukatzea. Eraikitzaileen ardura da lan hori, eta saiakerak egin badira ere, ez da ezer lortu.<br>• Intxaurtxuetako eta Elorretako egin gabeko etxeen egituren arazoari irtenbide bat eman.<br>• Ez da Plan Orokor berria gauzatu, hurrengo urtetarako utzi da.<br>• Herriaren estetika hobetzea.<br>• Elorretan suskidura etxebizitzak eraikitzea ez du lehenetsi Eusko Jaurlaritzak. |
| • HILERRIA<br>- Hutsik dauden horma-hilobiei irtenbide bat eman<br>- Errautsak gordetzeko leku berriak | • Hutsik zeuden horma-hilobiak tapatu dira | • Olazar eta hilerri arteko magala konpondu da.<br>• Txukuntze lan batzuk egin badira ere, lanekin jarraitu beharra dago.<br>• Hilerria berrantolatzen jarraitu behar da. | • Errautsak gordetzeko leku berriak. |